

2011ko uztail, abuztu eta irailean 2.739 ezkontza izan ziren, aurreko urteko aldi berean baino %4,7 gutxiago

2011ko hirugarren hiruhilekoan, ezkontza zibilen proportzioa handiagoa izan zen aurreko urteko aldi berean baino

Euskal AEko ezkontzak: EUSTATen datuen arabera, 2011ko uztailan, abuztuan eta irailean guztira 2.739 ezkontza izan ziren Euskal AEn; hau da, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean %4,7 gutxiago. Arabarrek 382 ezkontza egin zituzten, gipuzkoarrek 824 eta bizkaitarrek 1.469. Euskal AEtik kanpo biziko direnen kasuan, ezkontzak 64 izan ziren.

Ezkontzen %58,4 zibilak izan ziren, 2010eko aldi berean baino ehuneko 3,5 puntu gehiago. Era berean, proportzio hori 2011ko bigarren hiruhilekoko baino txikiagoa da, aldi hartako ezkontzen %67,3 zibilak izan baitziren.

Uztaila da, oraindik ere, ezkontzeko hilik gustukoena

Ezkontzarik gehien (1.257), uztailan; ondoren (1.115), irailean. Bestalde, aurrekoetan bezala, ezkontzarik gutxien (367) izandako udako hila abuztua izan zen, aurreko urteko hil beraren aldean %6,6 gutxiago.

2011ko hirugarren hiruhileko horretako 2.739 ezkontzetan, bizilekua Euskal AEn duten 2.646 gizonetzko eta 2.690 emakumezko ezkondu ziren. Horietatik 2.426 senarrentzat (%91,7), lehen ezkontza izan zen; 9 alargun eta 211 dibortziatu berriro ezkondu ziren. Lehenengo aldiz ezkonduko emakumeen portzentajea gizonena baino zertxobait txikiagoa; 2.455 izan ziren (%91,3); alargunak 4 eta dibortziatuak 231.

Ezkontideek eztei-egunean zuten adinari erreparatuta, senarren artean, %80,8k 30 urtetik gora zituzten; emazteen artean, berriz, %67,4k. Aurreko urteko aldi beraren aldean, proportzioa bi sexuetan handitu da, baina emakumeen artean areago: 2010ean %65,3k zeuzkaten 30 urte baino gehiago, gizonen artean %79,8 zelarrik.


Emazte berrien %8, atzerritarrak

2011ko udan zehar izandako ezkontzetan, gizonen %5,6 eta emakumeen %8 ez ziren espainiarrak.

| | 2011ko 3. hiruhilekoa | | Aurreko hiruhilekoa (2011ko 2. hiruhilekoa) | | Aurreko urteko hiruh. bera (2010ko 3. hiruhilekoa) | |
|--------------------|-----------------------|--------------|--|--------------|---|--------------|
| | kop. | % | kop. | % | kop. | % |
| EZKONTZAK | 2.739 | 100,0 | 2.431 | 100,0 | 2.873 | 100,0 |
| Kanonikoak | 1.139 | 41,6 | 794 | 32,7 | 1.297 | 45,1 |
| Zibilak | 1.600 | 58,4 | 1.637 | 67,3 | 1.576 | 54,9 |
| SENARGAIAK | 2.646 | 100,0 | 2.368 | 100,0 | 2.779 | 100,0 |
| Ezkongabeak | 2.426 | 91,7 | 2.133 | 90,1 | 2.548 | 91,7 |
| Alargunak | 9 | 0,3 | 18 | 0,8 | 11 | 0,4 |
| Dibortziatuak | 211 | 8,0 | 217 | 9,2 | 220 | 7,9 |
| EMAZTEGAIAK | 2.690 | 100,0 | 2.382 | 100,0 | 2.817 | 100,0 |
| Ezkongabeak | 2.455 | 91,3 | 2.187 | 91,8 | 2.605 | 92,5 |
| Alargunak | 4 | 0,1 | 6 | 0,3 | 9 | 0,3 |
| Dibortziatuak | 231 | 8,6 | 189 | 7,9 | 203 | 7,2 |

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Ezkontzen Estatistika

1. grafikoa: Ezkontzen hilez hileko mugimendua oinarria (100= b.b.)



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Ezkontzen Estatistika

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel.: +34-945-01 75 49 Faxa: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko EZKONTZEN ESTATISTIKARI buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko EZKONTZEN ESTATISTIKARI buruzko datu-bankua](#)